



ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola

Batxilergo 1 - Ekonomia

2024-2025 ikasturtea

Onura jatetxea

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresan, kasu honetan gure jatetxean; lankidetzak eta aliantzak beharrezkoak izango dira prozesu guztian zehar: produktuak edukitzeko, menuak sortzeko, lokala ondo mantentzeko... Gure enpresarentzat proiektua gauzatzeko hainbat funtsezko eragileak daude:

Hornitzaileak, lehengaiak edo zerbitzuak ematen dituztenak dira. Gure kasuan elikagaien hornitzaileak, gure inguruak aurkitzen ditugun nekazariak izango dira. Lehengaiak eta material jarraitua bermatzen dute.

Banaketa-aliatuak, produktuak edo zerbitzuak merkatura eramaten laguntzen dute. Eta gure jatetxean erabiltzen diren produktuak hornitzaileei erosten dizkiogu, baina hauek jatetxeraino transportatzeko, garraio enpresa bat azpikontratatu dugu.

Bestetik, **kolaboratzaile espezializatuak**; diseinua, teknologia edo marketin alorreko zerbitzuak eskaintzen dituzte. Gure enpresan, horretarako adostu dugu marketina sare sozialetatik egingo dugula, batez ere Instagram eta Tiko-Tok bitartez bezero gehiagoren atentzioa deitzeko. Baita gure web propioa egingo dugu, gure historia eta eguneroko menuak partekatzeko. Horretaz gain, hainbat marketin kanpaina erabiliko dira deskontuak eskaintzeko, eta abar. Honetaz arduratzeko marketinean aditua den pertsona bat kontratatuko da, eta arlo honi buruz lan egingo du espreski.

Ondoren, **finantza-bazkideak** ditugu, hauek kapital edo finantzaketa beharrei erantzuten dieten erakundeak edo pertsonak dira, eta gure kasuan gobernua da, gure jatetxea martxan jartzeko diru laguntza bat eskaini digutelako.

Bezeroak, jatetxera kontsumitzera etortzen direnekoa dira, eta hauek noski beharrezkoak direla sarrerak izateko.

Azkenik, jatetxean eguneroko **langileak** 11 pertsona izango dira: garbitzaile bat (jatetxea ixterakoan ondo garbitzeko eta hurrengo egunerako dena ondo egoteko), sukaldari bat eta 2 laguntzaile (menuak pentsatzeko, prestatzeko eta behar diren elikagaiak eskatzeko), 4 jatetxea zerbitzari (bezeroei eskatutakoa zerbitzeko eta arreta eman), 2



ikastolenelkartea

ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola

Batxilergo 1 - Ekonomia

2024-2025 ikasturtea

Onura jatetxea

tabernako serbitzari (bezeroak jaten tabernako produkturen bat eskaintzeko) eta kudeatzailea (beste langile guztien lana behar den bezala egiten den kudeatzeko eta aseguratzeko).

Ikusi dugun moduan, hainbat funtsezko eragile ditugu enpresa funtzionatu ahal izateko, baina denak ez daukate garrantzia bera, bakoitzak eragin desberdin bat daukalako enpresaren helburua lortzeko. Hornidura eta langileak lehenengo lekuetan kokatu ohi dira, prozesuaren egonkortasuna bermatzen dutelako. Bigarrenik, bezeroak dauzkagu, ezinbestekoak direnak enpresa bat funtzionatu al izateko. Eta, amaitzeko, banaketa aliatuak, kolaboratzaile espezializatuak eta finantza bazkideak ditugu, oso garrantzitsuak izan arren beraien beharra ez delako hain funtsezkoa.

Gure enpresan, aliantzak mantentzeko eta eraikitzeko, lehengaien kalitatea, kantitatea eta prezioa ez da aldatuko. Honekin lortu nahi duguna ildo beretik jarraitzea da, eta jendeak esfortzu ekonomiko handia behar ez izatea gure jatetxeaz gozatzeko.

Funtsezko eragileak gure jatetxearen kalitatea ez aldatzeko eta berdin mantentzeko, azpimarratzen ditugun eragileak hauek dira: hornitzaileak ez aldatzea, hau da, hornitzaile berdinenei lehengaiak erosten honekin lortzen duguna da gure menuaren kalitatea ez aldatzea. Beste aldetik sukaldari berdinak sukaldatuko dute, hau da, kontratu finko bat egingo diegu sukaldariei eta haiek sukaldatuko dute beti.